

HAINBAT JAKINGARRI *mjZKADI'KO*
AGI^ARITZAREN *EGUJ^RI-KOAVgj^*

Lehendaurrexko berbak

Saio honen xedea Eusko Jaurlaritzak Errepublika garaian argitaratu zuen *Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoan*¹ hizkuntzaren aldetik ageri diren berezitasunak eta ezaugarriak agertzea da, bai eta Administrazioaren eguneango jardunean exkax antzematen diren kontzeptuen ordaintzat balio lezaketen ordainak zein ordainen erdiesbidea iradokitzea ere.

Esan dezadan, lehenengo eta bat, zein den azterlan hau egiteko erabili dudan argitalpena: Leopoldo Zugazarena.

Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoan erabiltzen den euskarari dagokion ginoan, bertako euskara gipuzkera dela esan beharra dago, honela aitortzen du Leizaola jaunak Leopoldo Zugazaren argitaraldiko aurkezpenean; hala eta guztiz ere, bada iragarki eta xedapen batzuk, berbarako, *Euzkadi'rentzat Berjabetasun Araudia* eta beste hainbat, bizkaierazko berbak

¹ Elhuyarek argitaratu duen *Hiztegi entziklopedikoa*, txarto izendatzen da argitalpen hori, ze *Euzkal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria (EHAA)* ageri da, hori benetako izena ez, ezpada asmazioa delarik.

txertatzen dituztenak, eta beste batzuk (zortzi guztira), azkenik, bizkaieraz agertzen direnak.

Nortzuk izan ziren itzultzaileak?—Aitatu argitaraldiko hitzaurrean, itzultzailea Josu Azkue Tolosako epailea izan zela esaten bada ere, 1992ko azaroaren 30ean, Jesus Intxausti zena-rekin telefonoz izandako elkarrizketan, berak esan zidan, bertako itzultzaileak Fausto Leunda eta bera, Jesus Intxausti alegia, izan zirela. Beraz, barrenloturazkoa da bertako euskara gipuzkera izatea. Hala eta guztiz ere, berak gomutan ez bazekien ere, bazekien testu txiki batzuk heldu zirela bizkaieraz itzulita, Bizkaiko Aldundiarenak zirenak. Horrezaz gainera, *Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoaren* zenbakiak irakurri ahala, gauza bat agertzen da: testu bera bi modutara ematen da, ondorengo orrietan agertuko den legez; aurkibidean, berbarako, *aitatu* eta *bank* berbak agertzen dira, baina testuaren barman, *izendatu* eta *gabe*. Nor izan ote zen itzultzaile hori? Gehiago izan ote ziren? Gabriel Jauregi Uribarren karmeldarra bera izan ote zen?² Ala Eusebio Erkiagak itzuliko zituen testuren batzuk, bizkaie'razkoak batik bat? Hau litekeena da, eskuratu ditugun lekukotasunetatik atera dudanez. Bestalde, euskararen tipologiari begiratuta, garbizalea dela esan beharra dago. Hiztegiari dagokion ginoan, behintzat.

Badago beste arrazoi bat, aurreko baietza sendotzeko: Bizkaiko Aldundiak hasieran gipuzkeraz ematen zituen iragarkiak 1937an bizkaieraz ageriko dira.

Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoan, zortzi testu bakarrik ageri dira bizkaieraz, lehen esan bezala eta ondoko fitxetan erasota geldituko den legez. Beste iragarki askotan, berriz, gipuzkerazko testuan txertatzen diren bizkaierazko berbak

² «El 28 de octubre de 1936 fue llamado por el Gobierno Vasco y se le dio en el Ministerio de Justicia y Cultura el nombramiento de *Redactor Oficial de Textos Eusquéricos*, nombramiento que utilizó para sacar los nueve presos vecinos de Aramayona de las cárceles de Bilbao-. *Karmeldarrak Mar-kinan*, 421. or.)

ageriko dira, baina ezinbestean. Berdin dio testua Bizkaiko udal bati bakarrik dagokion, edo Bizkaiko Aldundikoa den, euskalkiaren aldetik berezitasunik ez dago eta.

Lan honek ez du oro-hartzailea izan nahi; badakit hemen islatuko ditudan berbez landara beste asko eta asko ere ageri direna; beti ere, bizkaierak batuari egin diezaiokeen ekarriari begira, eta zuzenbidearen aldetik argi-izpiren bat eskainiko duelakoan, ahalegintxo hau egiteari egoki iritzi diot.

Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoaren ondoko aleetan, guztiok Bizkaiko udalei dagozkienak badira ere, berba solterren bat baino ez da bizkaieraz ageriko.

Bidenabar, eskerrak eman nahi dizkiet Deustuko Unibertsitateko Eusko Ikaskuntzen Institutuari eta Urretxindorra liburudendako Karlosi, azterlan hau egiteko eman dizkidaten erraztasun guztiengatik.

Lan honen sailkapena honako atal hauetan datza:

I.—Bizkaieraz idatziriko testuak. Bertan, fitxatan bananduta, bizkaieraz idatzirik dauden testuak ageriko dira. Fitxa horietan jakingarri batzuk eskainiko dira, zertarako eta inork testua topatu nahi badu arazorik izan ez dezan.

Bertan erabiltzen diren berbei dagokienez, *Egunerokoan* bertan erabiltzen direnak ageriko ditut, testuak kokatueran errazbidea ematen duenez.

II.—Jasotako bizkaierazko berba batzuk argitaratu ziren hurrenkeraren arabera sailkatuta. Atal honetan, bizkaierazko berba edo aditz-jokoren bat edo beste dakarten testuak daude, antolaketa honekin: lehenengo zutabean, sarrera dago; bigarreanean, *Egunerokoaren* alearen eguna; hirugarrenean, haren orri zenbakia edo zenbakiak; eta laugarrenean, testu-emailea den erakundea. Bertan dauden sarrerak denboraren arabera ageri dira sailkatuak.

III.—Jasotako bizkaierazko berba batzuk alfabetoaren arabera sailkatuta. Atal honetan, aurreko ataleko sarrera berberak

daude, baina tituluari agertzen den legez, alfabetoaren arabera daude taxututa, beharrezkoa bada, modu atonduago batez erabili ahal izan daitezten.

IV.—Bizkaierazko zenbait berba solte hartzen duten testu batzuen zerrenda. Atal honek aurreko bien osagarria izan nahi du, eta denboraren arabera beraien aurretik badago ere, beraien eginkizuna bigarren mailakoa den legez, bertan jarri dut.

V.—Hiztegi juridiko eta administratiboan aldetik testu horiek dituzten ezaugarri eta berezitasunak. Zuzenean zein zeharka egin litezkeen ekarriak. Ekarri hori ez dut hitzez hitz hartzen, ezpada abiagune gisa, ezik berba batzuek gaur egun ez dute indarrik, beti ere, beraien bitartez beste konponbide batzuk ere azter litezke.

VI.—*Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoaren* estatistika. Atal honen xedea, berriz, eguneroko honetan ageri diren testu guztien gaineko kopuruak ematea da.

I. Bizkaieraz idatziriko festuak

Ondoren *Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoan* ageri diren bizkaierazko testuei dagozkien fitxak emango dim:

1. FITXA

<i>Testua:</i>	Euzkadi'ko Bitarteko-Jaurlaritzaren aitortpena. Jaurgo-Agerpidia
<i>Mota:</i>	testu politikoa
<i>Emailea.-</i>	Euzkadi'ko Bitarteko-Jaurlaritza
<i>Itzultzailea:</i>	Euzkadi'ko Bitarteko-Jaurlaritzako itzultzailea
<i>Garaia:</i>	1936-X-7
<i>Liburua:</i>	<i>Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoa</i> (1. liburukia) 1936-X-9ko alea. Leopoldo Zugaza argitaratzailea

Orri zk.: 7-8
Orri kp.: 1³

2. FITXA

Testua: Euzkadi'rentzat Berjabetasun Araudia
Mota: testu politikoa
Emalea: Euzkadi'ko Bitarteko-Jaurlaritza
Itzultzailea: Euzkadi'ko Bitarteko-Jaurlaritzako itzultzailea
Garaia-: 1936-X
Liburua: *Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoa* (1. liburukia) / 1936-X-9, 10,11, 12 eta 13ko aleak / Leopoldo Zugaza argitaratzailea
Orrizk.: 3-4; 12-13; 19-21; 27-29; 35-37
Oharrak: testua nahasia da eta aditza gipuzkeraz agertzen bada ere, badira zenbait berba bizkaierazkoak direnak. Zelan testu garbizalea den, euskalki guztietara jotzen du gaztelerazko berbetatik ihesi.
Itzultzailea Leopoldo Zugazaren argitaraldian agertzen da, Josu Azkue Tolosako epailea izan zela, baina gorago aitatu dudana legez, *Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoaren* itzulpenik gehienak egin zituztenak Fausto Leunda eta Jesus In-

³ Bizkaieraz argitaratzen diren orrien kopurua lortzeko, neurri legez, orrialdea hartu dut, ze kontutan hartu behar da *Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoa* erabat elebiduna dela. Hortaz, hau denaz bezanbatean, orri bat egoteak ondokoa esan gura du: bi orrialdetako ezkeraldea oso-osorik hartzen duela bizkaieraz dagoen testuak. Hein berean hartu behar da kalkulatu hori beste kasu guztietarako.

txausti izan ziren, *beraz*, gipuzkeradunak, eta Jesus Intxaustik berak telefonoz baieztatu zidan legez, gipuzkeraz egin zituzten itzulpenak.

3. FITXA

<i>Testua:</i>	Lanariei dagozkion (sic) erabakien baiezpena
<i>Mota:</i>	administrazio-testua
<i>Emailea:</i>	Bizkai'ko Aldundia
<i>Itzultzailea:</i>	Euzkadi'ko Bitarteko-Jaurlaritzako itzultzailea
<i>Garaia:</i>	1936-XI-13
<i>Liburua:</i>	<i>Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoa</i> (1. liburukia) / 1936-XI-18ko alea / Leopoldo Zugaza argitaratzailea
<i>Orri zk.:</i>	329-330
<i>Orri kp.:</i>	0,5

4. FITXA

<i>Testua:</i>	Erabakia
<i>Mota:</i>	administrazio-testua
<i>Emailea:</i>	Bizkai'ko Aldundiaren «Comisi6n Gestora»
<i>Itzultzailea:</i>	7
<i>Garaia:</i>	1937-V-14
<i>Liburua:</i>	<i>Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoa</i> (3. liburukia) / 1937-V-16ko alea / Leopoldo Zugaza argitaratzailea

Orrizk.: 1.666

Orri kp.: 0,25

5. FirxA

<i>Testua:</i>	Erabakia
<i>Mota:</i>	administrazio-testua
<i>Emailea:</i>	Bizkai'ko Aldundia
<i>Itzultzailea:</i>	?
<i>Garaia:</i>	1937-V-15
<i>Liburuci:</i>	<i>Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoa</i> (3. liburukia) / 1937-V-18ko alea / Leopoldo Zugaza argitaratzailea
<i>Orri zk.:</i>	1.671-1.672
<i>Orri kp.:</i>	0,25

6. FITXA

<i>Testua:</i>	Erabakia
<i>Mota:</i>	administrazio-testua
<i>Emailea:</i>	Bizkai'ko Aldundia
<i>Itzultzailea:</i>	?
<i>Garaia:</i>	1937-V-17
<i>Liburua:</i>	<i>Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoa</i> (3. liburukia) / 1937-V-19ko alea / Leopoldo Zugaza argitaratzailea

Orrizk.: 1.677-1.678

Orri kp.: 0,25

7. FITXA

<i>Testua:</i>	Erabakia
<i>Mota:</i>	administrazio-testua
<i>Emailea:</i>	Bizkai'ko Aldundia
<i>Itzultzailea:</i>	?
<i>Garaia:</i>	1937-V-31
<i>Liburua:</i>	<i>Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoa</i> (3. liburukia) / 1937-VI-2ko alea / Leopoldo Zugaza argitaratzailea
<i>Orri zk.:</i>	1.751
<i>Orri kp.:</i>	0,25

8. FI'IXA

<i>Testua:</i>	Erabakia
<i>Mota:</i>	administrazio-testua
<i>Emailea:</i>	Bizkai'ko Aldundia
<i>Itzultzailea:</i>	?
<i>Garaia:</i>	1937-VI-10
<i>Liburua:</i>	<i>Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoa</i> (3. liburukia) / 1937-VI—12ko alea / Leopoldo Zugaza argitaratzailea

Orrizk.: 1.800
Orri kp.: 0,25

9. FITXA

<i>Testua:</i>	Alkar-Leya
<i>Mota:</i>	administrazio-testua
<i>Emailea:</i>	Bizkai'ko Aldundia
<i>Itzultzailea:</i>	?
<i>Garaia:</i>	1937-VI-10
<i>Liburua:</i>	<i>Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoa</i> (3- liburukia) / 1937-VI—12ko alea / Leopoldo Zugaza argitaratzailea
<i>Orri zk.:</i>	1.800-1.801
<i>Orri kp.:</i>	0,1

II, Jasotako bizkaierazko berba batzwk argitaratu ziren hurrenkerareii arabera sailkatota

Atal honetan, eta aurrekoan esandakoaren froga gisa, gipuzkerazko testuetan txertaturik ageri diren bizkaierazko izen, adjektibo, adberbio, adizki etabarretarik nabarraenak azalduko ditut, ondoko hurrenkeraren arabera: lehenengo zutabean berba ageriko da; bigarrenean, *Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoa* agertu zen eguna; hurrengoan, berriz, ale horretako orriaren zenbakia, alegia, berba horri dagokiona; eta bosgarrenean, bizkaierazko berba hori duen testua eman zuen erakundearen izena.

Azken zutabeari erreparatuz gero, bizkaierazko berbak Bizkaiko erakundeen iragarkietan ez ezik, Eusko Jaurlaritzaren erakundeenetan ere agertzen direla ikus dezakegu.

SARRERA	AKGITAUPEN EGUNA	OERIA	ERAKUNDEA
<i>eragin</i>	1936-X-14	45-47	Gernika eta bere erbarrutiko Epailletza
<i>aitatu</i>	1936-X-14	45-47	Gernika eta bere erbarrutiko Epailletza
<i>etxeoste</i>	1936-X-14	45-47	Gernika eta bere erbarrutiko Epailletza
<i>sorkalde</i>	1936-X-14	45^7	Gernika eta bere erbarrutiko Epailletza
<i>sarkalde</i>	1936-X-14	45-47	Gernika eta bere erbarrutiko Epailletza
<i>garagarrila⁴</i>	1936-X-14	45-47	Gernika eta bere erbarrutiko Epailletza
<i>dagiegu</i>	1936-X-14	45-47	Gernika eta bere erbarrutiko Epailletza
<i>egokiera</i>	1936-X-23	119	Erri-Lanak Zaingoa
<i>dagiogu</i>	1936-X-25	135	Santurtze (Antiguo)'ko Udala
<i>egokera</i>	1936-X-28	155	Gintza Zaingoa
<i>lez</i>	1936-X-30	170-174	Erri-Lanak Zaingoa
<i>biziera</i>	1936-XI-5	218-220	Zuzentza ta Gogo-Lantze Zaingoa
<i>dagitzuet</i>	1936-XI-6	234	-Josuren Biotzaren Deya» Bazkun Izengea
<i>bank</i>	1936-XI-7	242	Gizarte Laguntza Zaingoa
<i>lekai</i>	1936-XI-7	242	Gizarte Laguntza Zaingoa
<i>abagune</i>	1936-XI-18	324-327	Zuzentza ta Gogo-Lantze Zaingoa
<i>gaztedi</i>	1936-XI-18	324-327	Zuzentza ta Gogo-Lantze Zaingoa
<i>begoz</i>	1936-XII-1	432-436	Muxika'ko Udala
<i>ostu</i>	1936-XII-3	452	Bilbao'ko 4'go. Epailletza Argibidelaria
<i>ostu</i>	1936-XII-3	460	Bilbao'ko 4'go. Epailletza Argibidelaria
<i>lez</i>	1936-XII-9	502-503	Gintza Zaingoa
<i>lez</i>	1936-XII-17	570	Nekazaritza Zaingoa
<i>lez</i>	1936-XII-17	575	Bizkai'ko Banakaritz-Auzitegia
<i>lez</i>	1936-XII-17	576	Bizkai'ko Banakaritz-Auzitegia
<i>lez</i>	1936-XII-18	586	Bizkai'ko Banakaritz-Auzitegia
<i>dagiot</i>	1936-XII-19	592	Bilbao'ko 3'go. Epailletza Argibidelaria
<i>dagiot</i>	1936-XII-19	593	Bilbao'ko 4'go. Epailletza Argibidelaria
<i>ostutze imintzio</i>	1936-XII-19	594	Bilbao'ko 4'go. Epailletza Argibidelaria
<i>ostutzea</i>	1936-XII-23	624	Bilbao'ko 4'go. Epailletza Argibidelaria
<i>ostutzea</i>	1936-XII-25	642	Bilbao'ko 4'go. Epailletza Argibidelaria
<i>ostutze imintzio</i>	1936-XII-26	653	Bilbao'ko 4'go. Epailletza Argibidelaria
<i>ostutzea</i>	1936-XII-31	695	Bilbao'ko 2'go. Epailletza Argibidelaria
<i>diruketa</i>	1937-1-12	790	Basauri'ko Udala

Testu honetan *r* eta / kakodunak erdian lerroa daroaten *rr* eta // digramekin ordezkatu ditut, ordenagailuak ez baitu bestelako letrarik sartzen uzten.

SARRERA	ARGmiPEN EGUNA	ORRIA	ERAKUNDEA
<i>andereno</i>	1937-1-12	790	Basauri'ko Udala
<i>oietzaz ganera</i>	1937-1-14	805	Gernika'ko Lenen-eskabideen Epailletza
<i>dagiot</i>	1937-1-30	942	Bilbao'ko 1'go. Epailletza Argibidelaria
<i>soin-azikera</i>	1937-1-31	943	Zuzentza ta Gogo-Lantze Zaingoa
<i>geldi-erazo</i>	1937-II-1	952	Zuzentza ta Gogo-Lantze Zaingoa
<i>partxon</i>	1937-II-6	997	Aurrebegiramena Zuzendaritza Nagusia
<i>ostutzea</i>	1937-II-6	999	Bilbao'ko 1'go. Epailletza Argibidelaria
<i>ostutzea (sic)</i>	1937-11-10	1.035	Bilbao'ko 3'go. Epailletza Argibidelaria
<i>dagiot</i>	1937-11-10	1.036	Balmaseda'ko Epailletza Argibidelaria
<i>artu ezean</i>	1937-11-11	1.037	Gizarte Laguntza Zaingoa
<i>ostutzea (sic)</i>	1937-11-11	1.041	Bilbao'ko 3'go. Epailletza Argibidelaria
<i>igeltzero</i>	1937-11-11	1.041	Bilbao'ko 3'go. Epailletza Argibidelaria
<i>beragaz su egitea</i>	1937-11-12	1.048	Goi Agintaritza'ko 1'go. Sailla
<i>bearkunak</i>	1937-11-13	1.053	Nekazaritza Zaingoa
<i>igarri</i>	1937-11-13	1.053	Nekazaritza Zaingoa
<i>biaramonetik</i>	1937-11-13	1.054	Nekazaritza Zaingoa
<i>gogo-azikera</i>	1937-11-16	1.078	Zuzentza ta Gogo-Lantze Zaingoa
<i>zioak</i>	1937-11-18	1.098	Erri-Lanak Zaingoa
<i>amaitu</i>	1937-11-18	1.098	Erri-Lanak Zaingoa
<i>dagiet</i>	1937-11-19	1.111	Epailletza Argibidelari Berezia
<i>ostutzea</i>	1937-11-20	1.115	Bilbao'ko 2'go. Epailletza Argibidelaria
<i>ostuak</i>	1937-11-20	1.115	Bilbao'ko 2'go. Epailletza Argibidelaria
<i>aitatu</i>	1937-11-21	1.122	Erri-Lanak Zaingoa
<i>aitatu</i>	1937-11-21	1.123	Erri-Lanak Zaingoa
<i>dagiet</i>	1937-11-22	1.131	Balmaseda'ko Epailletza Argibidelaria ⁵
<i>ardandegi</i>	1937-11-24	1.144	Ostatuetako Nagusi-LangiUeen Auzitegia
<i>lanparoi</i>	1937-11-25	1.151	Nekazaritza Zaingoa
<i>aitatu</i>	1937-11-26	1.158	Salerosketa ta Orniketa Zaingoa
<i>uri</i>	1937-11-26	1.161	Nekazaritza Zaingoa
<i>gertakizunatzaz</i>	1937-11-26	1.164	Bilbao'ko 4'go. Epailletza Argibidelaria
<i>diruatzaz</i>	1937-11-26	1.164	Bilbao'ko 4'go. Epailletza Argibidelaria
<i>gauzetaz</i>	1937-11-26	1.164	Bilbao'ko 4'go. Epailletza Argibidelaria
<i>dagiot</i>	1937-11-27	1.166	Bizkai'ko Ogasun Ordezkaritza
<i>ostutzea</i>	1937-11-27	1.168	Bilbao'ko 2'go. Epailletza Argibidelaria

Orrialdeko iragarki bitan ageri da.

SARRERA	ARGITAIPEN EGUNA	ORKJA	F.RAKUNDEA
<i>aitatu</i>	1937-III-1	1.182	Erri-Lanak Zaingoa
<i>uri</i>	1937-III-7	1.223	Bilbao'ko 4'go. Epailletza Argibidelaria
<i>uri</i>	1937-III-9	1.234	Osasun Zaingoa
<i>urizain</i>	1937-III-17	1.304	Bilbao'ko Epailletza Berezi Nagusia
<i>lez</i>	1937-III-21	1.336	Eraman-ekartzte Zuzendaritza Nagusia
<i>aitatu</i>	1937-III-21	1.336	Eraman-ekartzte Zuzendaritza Nagusia
<i>uri</i>	1937-IV-1	1.408	Bilbao'ko Udala
<i>aitatu</i>	1937-IV-1	1.409	Bilbao'ko Udala
<i>jorraif</i>	1937-IV-2	1.409	Manaria'ko Udala
<i>Diruketa</i>	1937-IV-2	1.411	Ogasun Zaingoa
<i>Eleiz-Ate</i>	1937-W-2	1.418	Barakaldo'ko Epailletza
<i>bete bitartean</i>	1937-IV-4	1.431	Zuzentza ta Gogo-Lantze Zaingoa
<i>ogasun-paper</i>	1937-IV-4	1.434	Bizkai'ko Zubia Bazkuna
<i>onordeko-ogasun</i>	1937-IV-5	1.478	Sestao'ko Uri Epailletza
<i>erritarak</i>	1937-IV-7	1.453	Gizarte Laguntza Zaingoa
<i>uri</i>	1937-IV-7	1.453	Nekazaritza Idazkaritza Nagusia
<i>jausi</i>	1937-IV-8	1.457	Ogasun Zaingoa
<i>aitatu</i>	1937-IV-9	1.465	Erri-Lanak Zaingoa
<i>uri</i>	1937-IV-9	1.469	Durango'ko Udala
<i>dagiegu</i>	1937-IV-9	1.469	Durango'ko Udala
<i>uribarruti</i>	1937-IV-10	1.472	Ogasun Zaingoa
<i>zabar dabiltzanak</i>	1937-IV-10	1.472	Nekazaritza Idazkaritza Nagusia
<i>lez</i>	1937-IV-10	1.472	Nekazaritza Idazkaritza Nagusia
<i>erreak</i>	1937-IV-11	1.482	Sanchez Vera'tar Joseba Mirenaren Latziialtegia
<i>erritarra</i>	1937-IV-13	1.491	Erri-Zaintza Zaingoa
<i>uri</i>	1937-IV-15	1.502	Osasun Zaingoa
<i>Ogasunak</i>	1937-IV-15	1.503	Bilbao'ko 2'gn. Epailletza argibidelaria
<i>Legedi</i>	1937-IV-16	1.507	Euzkadi'ko Bitarteko-Jaurlaritzaren Lendakaritza
<i>mendeko</i>	1937-IV-16	1.511	3'gn. Epaitegi Argibidelari berezia
<i>mendean</i>	1937-W-16	1.512	Getxo'ko Udala
<i>esaldi baf</i>	1937-IV-17	1.516	Zuzentza ta Gogo-Lantze Zaingoa
<i>ostu</i>	1937-IV-17	1.519	Bilbao'ko 2'gn. Epailletza argibidelaria
<i>aitatu</i>	1937-IV-18	1.525	Bilbao'ko 2'gn. Epailletza argibidelaria

⁶ Hilan izenak ez ditut jarri, tokitik tokira aldatzen baitira.

⁷ «... burutu ezin deiken nabarmenkeri baten mendera jausita bizi-bearra».

SARREBA	ARGHALPEN EGUNA	ORBIA	ERAKUNDEA
<i>ostu</i>	1937-IV-18	1.525	Bilbao'ko 2'gn. Epailletza argibidelaria
<i>nongotarra</i>	1937-IV-18	1.527-29	Bizkai'ko Itxas-Ordezkaritza
<i>Uri-Epailleak</i>	1937-IV-20	1.535	Zuzentza ta Gogo-Lantze Zaingoa
<i>lez</i>	1937-IV-20	1.536	Zuzentza ta Gogo-Lantze Zaingoa
<i>mendera</i>	1937-IV-20	1.536	Goi-Batzorde Muetalaria
<i>dagiegu</i>	1937-IV-21	1.543	Hormaetxe Eraikitze Batzordea, B.I.
<i>dagie</i>	1937-IV-21	1.543	«Begofia'ko Andre Mari» Euzko-Bazkun Eungiilea
<i>aitatu</i>	1937-IV-22	1.548	Epailletza Berezi Nagusiena
<i>dagiot</i>	1937-IV-22	1.548	Gipuzkoa'ko Guda Enak.—Guda-Epailletza
<i>uri</i>	1937-IV-25	1.561	Nekazaritza Zaingoa
<i>ordain lez</i>	1937-IV-29	1.587	Bilbao'ko 4'gn. Epailletza argibidelaria
<i>Lekaima</i>	1937-V-3	1.604	Gizarte Laguntza Zaingoa
<i>aitatu</i>	1937-V-4	1.607	Aurkibidea ⁸
<i>bank</i>	1937-V-4	1.607	Aurkibidea ⁹
<i>dagiogu</i>	1937-V-4	1.611	Bilbao'ko 2'gn. Epailletza argibidelaria
<i>izakera</i>	1937-V-4	1.612	Bilbao'ko Udala
<i>uri</i>	1937-V-6	1.619	Bizkai'ko Aldundia
<i>uri</i>	1937-V-7	1.623	Bizkai'ko Aldundia
<i>aitorketa</i>	1937-V-9	1.633	Balmaseda'ko Epailletza Argibidelaria
<i>aitatu</i>	1937-V-10	1.635	Aurkibidea
<i>lez</i>	1937-V-10	1.635	Aurkibidea
<i>uri-barruti</i>	1937-V-14	1.655	Aurkibidea
<i>onetaz ganera</i>	1937-V-15	1.660	Bilbao'ko 2'gn. Epailletza Argibidelaria
<i>mende</i>	1937-V-16	1.665	Erri-Zaintza Zaingoa
<i>dagiegu</i>	1937-V-18	1.674	Lemona'ko Karebeltzak, I.B.
<i>lez</i>	1937-V-19	1.676	Guda Zaingoa
<i>uri-barruti</i>	1937-V-20	1.679	Aurkibidea
<i>ostutzea</i>	1937-V-22	1.689	Bilbao'ko 1'go. Epailletza argibidelaria
<i>dagiot</i>	1937-V-25	1.703-4	Bizkai'ko Erri-Auzitegia
<i>dagie</i>	1937-V-26	1.708	Balmaseda'ko Epailletza Argibidelaria
<i>lez</i>	1937-V-28	1.715	Ogasun Zaingoa
<i>zioz</i>	1937-VI-3	1.755	Ogasun Zaingoa
<i>sowski</i>	1937-VI-3	1.757	Ogasun Zaingoa

⁸ Testuan bertan, *izendatu*.

⁹ Testuan bertan, *gabe*.

SARRERA	ARGTTALPEN EGUNA	ORRIA	ERAKUNDEA
<i>guda-soroski</i>	1937-VI-4	1.765	Ogasun Zaingoa
<i>dagiegu</i>	1937-VI-8	1.784	Itxas Eraman-ekartzeen Nagusi Langilleen Auzitegia
<i>dagie</i>	1937-VI-8	1.784	Artueman eta Arturen Bazkun Izengea
<i>mende</i>	1937-VI-11	1.795	Nekazaritza Zaingoa
<i>jausi</i>	1937-VI-11	1.795	Nekazaritza Zaingoa
<i>dagiegu</i>	1937-VI-13	1.808	Hulleras del Turon, B.I.
<i>dagiegu</i>	1937-VI-13	1.808	Bizkaiko Labetzarrak B.I.
<i>dagie</i>	1937-VI-14	1.812	Gaur-gaurko Lertiak, B.I.
<i>dagiot</i>	1937-VI-16	1.818	Bilbao'ko l'go. Epailletza argibidelaria
<i>dagioigu</i>	1937-VI-16	1.818	Bilbao'ko l'go. Epailletza argibidelaria
<i>dagioigu</i>	1937-VI-16	1.819	Bilbao'ko l'go. Epailletza argibidelaria

HI. Jasotako blxkalerazko berba bateak alfabetoaren arabera sailkatuta

Atal honetan, aurreko ataleko sarrerak eurak ditugu, baina alfabetoaren arabera atondurik, zertarako eta berbak hurren-kera horretara azalduta errazago izan dakizun, irakurle horri, beraiek topatzea. Aurreko atalean bezala, sarrera bat behin baino gehiagotan agertzeraz, horretara emango da, ezik bera baita erkide den jakingarri bakarra, argitalpen eguna, orri zenbakiak eta, bereziki, erakunde testu-emailea banan-banan-goak direnez.

SARRERA	1 ARGITALPEN EGUNA	ORRIA	ERAKUNDEA
III	1936-XI-18	324-327	Zuzentza ta Gogo-Lantze Zaingoa
	1936-X-14	45-47	Gernika eta bere erbarrutiko Epailletza
	1937-11-21	1.122	Erri-Lanak Zaingoa
	1937-11-21	1.123	Erri-Lanak Zaingoa
	1937-11-26	1.158	Salerosketa ta Orniketa Zaingoa
	1937-III-1	1.182	Erri-Lanak Zaingoa

SABSF.RA	ARGITALPEN EGUNA	ORFLV	ERAKUNDEA
<i>aitatu</i>	1937-11-21	1.336	Eraman-ekartzte Zuzendaritza Nagusia
<i>aitatu</i>	1937-IV-1	1.409	Bilbao'ko Udala
<i>aitatu</i>	1937-IV-9	1.465	Erri-Lanak Zaingoa
<i>aitatu</i>	1937-IV-18	1.525	Bilbao'ko 2'gn. EpaiUetza argibidelaria
<i>aitatu</i>	1937-IV-22	1.548	Epailletza Berezi Nagusia
<i>aitatu</i>	1937-V-4	1.607	Aurkibidea ¹⁰
<i>aitatu</i>	1937-V-10	1.635	Aurkibidea
<i>aitorketa</i>	1937-V-9	1.633	Balmaseda'ko Epailletza Argibidelaria
<i>amaitu</i>	1937-11-18	1.098	Erri-Lanak Zaingoa
<i>andereno</i>	1937-1-12	790	Basauri'ko Udala
<i>ardandegi</i>	1937-11-24	1.144	Ostatuetako Nagusi-Langilleen Auzitegia
<i>artu ezean</i>	1937-11-11	1.037	Gizarte Laguntza Zaingoa
<i>batik</i>	1936-XI-7	242	Gizarte Laguntza Zaingoa
<i>bank</i>	1937-V-4	1.607	Aurkibidea ¹¹
<i>bearkunak</i>	1937-11-13	1.053	Nekazaritza Zaingoa
<i>begoz</i>	1936-XII-1	432-436	Muxika'ko Udala
<i>beragaz su egitea</i>	1937-11-12	1.048	Goi Agintaritza'ko l'go. Sailla
<i>bete bitartean</i>	1937-IV-4	1.431	Zuzentza ta Gogo-Lantze Zaingoa
<i>biaramonetik</i>	1937-11-13	1.054	Nekazaritza Zaingoa
<i>biziera</i>	1936-XI-5	218-220	Zuzentza ta Gogo-Lantze Zaingoa
<i>dagie</i>	1937-IV-21	1.543	•Begona'ko Andre Mari» Euzko-Bazkun Eungilllea
<i>dagie</i>	1937-V-26	1.708	Balmaseda'ko Epailletza Argibidelaria
<i>dagie</i>	1937-VI-8	1.784	Artueman eta Arturen Bazkun Izengea
<i>dagie</i>	1937-VI-14	1.812	Gaur-gaurko Lertiak, B.I.
<i>dagiegu</i>	1936-X-14	45-47	Gernika eta bere erbarrutiko Epailletza
<i>dagiegu</i>	1937-IV-9	1.469	Durango'ko Udala
<i>dagiegu</i>	1937-IV-21	1.543	Hormaetxe Eraikitze Batzordea, B.I.
<i>dagiegu</i>	1937-V-18	1.674	Lemona'ko Karebeltzak, I.B.
<i>dagiegu</i>	1937-VI-8	1.784	Itxas Eraman-ekartzeen Nagusi Langilleen Auzitegia
<i>dagiegu</i>	1937-VI-13	1.808	Hulleras del Turon, B.I.
<i>dagiegu</i>	1937-VI-13	1.808	Bizkaiko Labetzarrak B.I.
<i>dagiet</i>	1937-11-19	1.111	Epailletza Argibidelari Berezia

¹⁰ Ikus 8. oharra.¹¹ Ikus 9. oharra.

SAKRERA.	AKG-TAIPEN EGUNA	ORRIA	ERAKUNDEA
<i>dagiet</i>	1937-11-22	1.131	Balmaseda'ko Epailletza Argibidelaria ¹²
<i>dagioigu</i>	1936-X-25	135	Santurtze (Antiguo)'ko Udala
<i>dagioigu</i>	1937-V-4	1.611	Bilbao'ko 2'gn. Epailletza argibidelaria
<i>dagioigu</i>	1937-VI-16	1.818	Bilbao'ko 1'go. Epailletza argibidelaria
<i>dagioigu</i>	1937-VI-16	1.819	Bilbao'ko 1'go. Epailletza argibidelaria
<i>dagiot</i>	1936-XII-19	592	Bilbao'ko 3'go. Epailletza Argibidelaria
<i>dagiot</i>	1936-XII-19	593	Bilbao'ko 4'go. Epailletza Argibidelaria
<i>dagiot</i>	1937-1-30	942	Bilbao'ko 1'go. Epailletza Argibidelaria
<i>dagiot</i>	1937-11-10	1.036	Balmaseda'ko Epailletza Argibidelaria
<i>dagiot</i>	1937-11-27	1.166	Bizkai'ko Ogasun Ordezkaritza
<i>dagiot</i>	1937-IV-22	1.548	Gipuzkoa'ko Guda Enak.—Guda-Epailletza
<i>dagiot</i>	1937-V-25	1.703-4	Bizkai'ko Erri-Auzitegia
<i>dagiot</i>	1937-VI-16	1.818	Bilbao'ko 1'go. Epailletza argibidelaria
<i>dagitzuet</i>	1936-XI-6	234	•Josuren Biotzaren Deya- Bazkun Izengea
<i>diruatzaz</i>	1937-11-26	1.164	Bilbao'ko 4'go. Epailletza Argibidelaria
<i>Diruketa</i>	1937-IV-2	1.411	Ogasun Zaingoa
<i>diruketa</i>	1937-1-12	790	Basauri'ko Udala
<i>egokera</i>	1936-X-28	155	Gintza Zaingoa
<i>egokiera</i>	1936-X-23	119	Erri-Lanak Zaingoa
<i>Eleiz-Ate</i>	1937-IV-2	1.418	Barakaldo'ko Epailletza
<i>eragin</i>	1936-X-14	45-47	Geriika eta bere erbarrutiko Epailletza
<i>erreak</i>	1937-rV-11	1.482	Sanchez Vera'tar Joseba Mirenaren Latzinaltegia
<i>erritarra</i>	1937-IV-13	1.491	Erri-Zaintza Zaingoa
<i>erritarrak</i>	1937-IV-7	1.453	Gizarte Laguntza Zaingoa
<i>esaldi batⁱ</i>	1937-IV-17	1.516	Zuzentza ta Gogo-Lantze Zaingoa
<i>etxeoste</i>	1936-X-14	45^7	Gernika eta bere erbarrutiko Epailletza
<i>garagarrila</i>	1936-X-14	45-i7	Gernika eta bere erbarrutiko Epailletza.
<i>gauzetaz</i>	1937-11-26	1.164	Bilbao'ko 4'go. Epailletza Argibidelaria
<i>gaztedi</i>	1936-XI-18	324-327	Zuzentza ta Gogo-Lantze Zaingoa
<i>geldi-erazo</i>	1937-II-1	952	Zuzentza ta Gogo-Lantze Zaingoa
<i>gertakizunatzaz</i>	1937-11-26	1.164	Bilbao'ko 4'go. Epailletza Argibidelaria
<i>gogo-azikera</i>	1937-11-16	1.078	Zuzentza ta Gogo-Lantze Zaingoa

¹² Ikus 5. oharra.¹³ Ikus 7. oharra.

SARRERA	ARGITADPEN EGUNA	ORRIA	ERAKUNDEA
<i>guda-soroski</i>	1937-VI-4	1765	Ogasun Zaingoa
<i>igarri</i>	1937-11-13	1.053	Nekazaritza Zaingoa
<i>igeltzero</i>	1937-H-11	1.041	Bilbao'ko 3'go. EpaiUetza Argibidelaria
<i>izakera</i>	1937-V-4	1.612	Bilbao'ko Udala
<i>jausi</i>	1937-IV-8	1.457	Ogasun Zaingoa
<i>jausi</i>	1937-VI-11	1.795	Nekazaritza Zaingoa
<i>jorrai</i> ^d	1937-IV-2	1.409	Mafiarria'ko Udala
<i>lanparoi</i>	1937-11-25	1.151	Nekazaritza Zaingoa
<i>legedi</i>	1937-IV-16	1.507	Euzkadi'ko Bitarteko-Jaurlaritzaren Lendakaritza
<i>Lekai</i>	1937-V-3	1.604	Gizarte Laguntza Zaingoa
<i>lekai</i>	1936-XI-7	242	Gizarte Laguntza Zaingoa
<i>lez</i>	1936-X-30	170-174	Erri-Lanak Zaingoa
<i>lez</i>	1936-XII-9	502-503	Gintza Zaingoa
<i>lez</i>	1936-XII-17	570	Nekazaritza Zaingoa
<i>lez</i>	1936-XII-17	575	Bizkai'ko Banakaritz-Auzitegia
<i>lez</i>	1936-XII-17	576	Bizkai'ko Banakaritz-Auzitegia
<i>lez</i>	1936-XII-18	586	Bizkai'ko Banakaritz-Auzitegia
<i>lez</i>	1937-11-21	1.336	Eraman-ekartze Zuzendaritza Nagusia
<i>lez</i>	1937-IV-10	1.472	Nekazaritza Idazkaritza Nagusia
<i>lez</i>	1937-IV-20	1.536	Zuzentza ta Gogo-Lantze Zaingoa
<i>lez</i>	1937-V-10	1.635	Aurkibidea
<i>lez</i>	1937-V-19	1.676	Guda Zaingoa
<i>lez</i>	1937-V-28	1.715	Ogasun Zaingoa
<i>tnende</i>	1937-V-16	1.665	Erri-Zaintza Zaingoa
<i>mende</i>	1937-VI-11	1.795	Nekazaritza Zaingoa
<i>mendean</i>	1937-IV-16	1.512	Getxo'ko Udala
<i>mendeko</i>	1937-IV-16	1.511	3'gn. Epaitegi Argibidelari berezia
<i>mendera</i>	1937-F/-20	1.536	Goi-Batzorde Muetalaria
<i>nongotarra</i>	1937-IV-18	1.527-29	Bizkai'ko Itxas-Ordezkaritza
<i>ogasun-paper</i>	1937-IV-4	1.434	Bizkai'ko Zubia Bazkuna
<i>Ogasunak</i>	1937-IV-15	1.503	Bilbao'ko 2'gn. EpaiUetza argibidelaria
<i>oietaz ganera</i>	1937-1-14	805	Gernika'ko Lenen-eskabideen EpaiUetza
<i>onetaz ganera</i>	1937-V-15	1.660	Bilbao'ko 2'gn. EpaiUetza Argibidelaria

Ikus 6. oharra.

SARRERA	ARGITAI PEN EGUNA	ORRIA	ERAKUNDEA
<i>ofiordeko-ogasun</i>	1937-IV-5	1.478	Sestao'ko Uri Epailletza
<i>ordain lez</i>	1937-IV-29	1.587	Bilbao'ko 4'gn. Epailletza argibidelaria
<i>ostu</i>	1936-XII-3	452	Bilbao'ko 4'go. Epailletza Argibidelaria
<i>ostu</i>	1956-XII-4	460	Bilbao'ko 4'go. Epailletza Argibidelaria
<i>ostu</i>	1937-IV-17	1.519	Bilbao'ko 2'gn. Epailletza argibidelaria
<i>ostu</i>	1937-IV-18	1.525	Bilbao'ko 2'gn. Epailletza argibidelaria
<i>ostuak</i>	1937-11-20	1.115	Bilbao'ko 2'go. Epailletza Argibidelaria
<i>ostutze imintzio</i>	1936-XII-19	594	Bilbao'ko 4'go. Epailletza Argibidelaria
<i>ostutze imintzio</i>	1936-XII-26	653	Bilbao'ko 4'go. Epailletza Argibidelaria
<i>ostutzea</i>	1936-XII-23	624	Bilbao'ko 4'go. Epailletza Argibidelaria
<i>ostutzea</i>	1936-XII-25	642	Bilbao'ko 4'go. Epailletza Argibidelaria
<i>ostutzea</i>	1936-XII-31	695	Bilbao'ko 2'go. Epailletza Argibidelaria
<i>ostutzea</i>	1937-II-6	999	Bilbao'ko 1'go. Epailletza Argibidelaria
<i>ostutzea</i>	1937-11-20	1.115	Bilbao'ko 2'go. Epailletza Argibidelaria
<i>ostutzea</i>	1937-H-27	1.168	Bilbao'ko 2'go. Epailletza Argibidelaria
<i>ostutzea</i>	1937-V-22	1.689	Bilbao'ko 1'go. Epailletza argibidelaria
<i>ostutzea (sic)</i>	1937-11-10	1.035	Bilbao'ko 3'go. Epailletza Argibidelaria
<i>ostutzea (sic)</i>	1937-11-11	1.041	Bilbao'ko 3'go. Epailletza Argibidelaria
<i>partxon</i>	1937-II-6	997	Aurrebegiramena Zuzendaritza Nagusia
<i>sarkalde</i>	1936-X-14	45-47	Gernika eta bere erbarrutiko Epailletza
<i>soin-azikera</i>	1937-1-31	943	Zuzentza ta Gogo-Lantze Zaingoa
<i>sorkalde</i>	1936-X-14	45-47	Gernika eta bere erbarrutiko Epailletza
<i>soroski</i>	1937-VI-3	1-757	Ogasun Zaingoa
<i>uri</i>	1937-11-26	1.161	Nekazaritza Zaingoa
<i>uri</i>	1937-III-7	1.223	Bilbao'ko 4'go. Epailletza Argibidelaria
<i>uri</i>	1937-III-9	1.234	Osasun Zaingoa
<i>uri</i>	1937-IV-1	1.408	Bilbao'ko Udala
<i>uri</i>	1937-IV-7	1.453	Nekazaritza Idazkaritza Nagusia
<i>uri</i>	1937-IV-9	1.469	Durango'ko Udala
<i>uri</i>	1937-IV-15	1.502	Osasun Zaingoa
<i>uri</i>	1937-IV-25	1.561	Nekazaritza Zaingoa
<i>uri</i>	1937-V-6	1.619	Bizkai'ko Aldundia
<i>uri</i>	1937-V-7	1.623	Bizkai'ko Aldundia
<i>uri-barruti</i>	1937-V-20	1.679	Aurkibidea
<i>Uri-Epailleak</i>	1937-IV-20	1.535	Zuzentza ta Gogo-Lantze Zaingoa
<i>uri-barruti</i>	1937-V-14	1.655	Aurkibidea

GIZARTEA

SAKRERA	ARGITALPEN EGUNA	OKRIA	ERAKUNDEA
<i>uribarruti</i>	1937-IV-10	' 1.472	Ogasun Zaingoa
<i>urizain</i>	1937-111-17	1.304	Bilbao'ko Epailletza Berezi Nagusia
<i>zabar dabiltzanak</i>	1937-IV-10	1.472	Nekazaritza Idazkaritza Nagusia
<i>zioak</i>	1937-11-18	1.098	Erri-Lanak Zaingoa
<i>zioz</i>	1937-VI-3	1.755	Ogasun Zaingoa

IV. Bizkaierazko zenbait berba solte hartzen diiten testuem zerrenda¹⁵

Atal honetan aipagune batzuk ageriko dira,, irakurle kuxkuxeroak gogorik badu, norberak aurki ditzan beste hainbat adibide. Idazlantxo honen hasieran esan bezala, ez da beraren asmoa *Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoan* ageri ziren bizkaierazko berba guztiak agertzea, ez eta zuzenbidearen' aldetik eragina izan dezaketen guztiak ere, ezpabere ale batzuk lagin legez. Antolaketa honelaxekoa da: lehenengo zutabea, *Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoaren* alea argitaratu zen eguna ageriko da; eta bigarrenean, berriz, ale horri dagokion orriaren zenbakia.

<i>Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoaren data</i>	Orri zenbakia
1936-X-13	39-iO
1936-X-15	53-55
1936-X-22	111-112
1936-X-23	120
1936-X-25	133-135

Aurreko ataletan, berbaren aitamen zehatza ez ezik, erabiltzailea eta abar ageri dira; hemen, aldiz, berbaren bat edo aditz-jokoren bat agertzen duten *Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoaren* iragarki batzuen orriak emango ditugu, Ian osagarri gisa beharrezko bada.

<i>Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoaxen data</i>	<i>Orri zenbakia</i>
1936-X-26	142-143
1936-X-27	151-152
1936-X-29	165-168
1936-XI-2	198-199
1936-XI-3	206-208
1936-XI-4	215-216
1936-XI-5	223-224
1936-XI-10	263-266
1936-XI-11	273-274
1936-XI-12	278-282
1936-XI-14	294
1936-XI-15	301-306
1936-XI-16	osorik
1936-XI-17	320-322
1936-XI-20	347-348
1936-XI-28	409 ^t 12
1936-XI-30	424-428

V= Hiztegi juridiko eta administrazioaren aldetik testu horiek ditezteiei ezaugarri eta berezitasunak.

Zuzenean zein zeharka egin litezkeen ekarriak

Atal honetan ez ditut lehen agertarazi ditudan berba guztiak atzera aitatu nahi, zuzenbidearen aldetik, esangura zabalean, Administrazioan bezala arlo juridiko hutsean zelanbaiteko eragina izan lezaketanak gogorarazi baizen.

Gutxi badira ere, bertara azalduko ditut, nire ustez, neurri batean edo bestean, artean, zuzenean zein zeharka, erabiltzeko moduan dauden berbak, Berbarako, *uri-epaile juez municipalen* ordain gisa agertzeak ez du nahitaez horretara erabili behar denik, bai, ostera, beraren bitartez, zehar bidez nahiz

zuzenean gaur egungo hiztegitan zelan joka litekeen aditzera ematea; beti ere, zuzenbidearen esparruetarik zein dagokion aitatu da, hala dagokienean:

Aitorketa.—Beraren esparru semantikoaren inguruan dau den beste berbekin batera auzibide zuzenbidearen alor garrantzitsuenetik bat atondu dezakegu; egin-eginean ere, auzibidezko zuzenbidean erabil litekeen berba dugu hau, berbarako, gaztelaniazko *declaracionen* ordaina izan genezake.

Diruketa.—Esangura bitan erabilia dago: gaur egun *Ekonomia* jakintzagaiaren eta ministraritzaren izenduran (1937ko apirilaren 2ko alearen 1411. orrialdean), batetik; eta, bestetik, *aurrekontu* buruera aditzera emateko era erabilia izan zen (1937ko urtarrilaren 12ko alearen 790. orrialdean). Bigarren bide honetatik, eta *ondareren* sinonimo edo sinonimo-gisako legez erabiltzeko moduko berba dugu berau. Gogoan hartu behar dugu egunean baino egunean berba gehiagoren beharra dugula zerga-esparruan; beraz, berba honi erreparatzea garrantzitsu deritzot.

Eleiz-Ate.—Berba honekin betidanik izendatzen izan da euskaraz gaztelaniazko administrazio zuzenbideko eta beste jakintzagai batzuetako *anteiglesia*. Gaur egun bera erabiltzen dira, nahiz eta ortografia egokitua izan dagoeneko, hala nola, *eleizate*, *elizate etab.*

Erritarra.—Gaur egun *hiritar* darabilgu haren orde; edozein ere, berba honekin batera baditugu beste batzuk esparru semantiko berdintsua osatu baina elkarretarik bereizi behar direnak, berbarako, *residente*, *vecino*, *domiciliado*, *transeunte* eta *ciudadano*. Barka iezadazu, irakurle horrek, baina neure beharrean Espainiako Zuzenbidea dut langai, eta berari egiten dizkiot aipamenak. Gaur egun, Herri Ardularitzaren Euskal Erakundearen eta UZEIren ekimenez, gaztelaniazko kontzeptu horien ordainak bilatu nahian gabiltza, eta orduko erabilera hori ezagutu ez ezik, aintzat hartu behar delakoan nago; ez, beharbada, orduan erabiltzen zen esangura berean atzera bul-

tzatzeko, ezpada berba horiek osotzen duten esparru semantiko horren zutabeetarik legez hartzeko.

Gogo-azikera.—Berba hau oso polita da; baina beraren esangura modu zabalagoan ulertzeko, *soin-azikerarekin* batera hartu behar dugu. Horrela, bada, hainbatetan gaztelaniazko *educacion moral* edo antzekoentzat ordaina euskaraz topatu nahi izan da, eta hor dugu, honetarako ederto balio dezakeen ordaina, orobat, *educacion fisicaven* gainean esan behar da, ezik bigarrenarekin, nire iritzi apalean, haren ordaina eman dezakegu. Egin-eginean ere, garai hartan *educacion* eta *instruccionen* ordain legez erabilia da.

Guda-soroski.—Irakuleak barkatu beharko dit, baina hemen nire *filiatarik bat* azaldu nahi izan dut; horrela, bada, bizkaieraz antzinatek erabili baina, gaur egun, galdu-aginean-edo dugun aditza berreskuratu behar delakoan nago, ez dakit, Errepublikaren garaian erabiltzen zen esanguran beren beregi, ala aldameneko beste esanguraren batean. Honezkero asmatuko zenuenez, *indemnizacion y pension deguerraren* ordain legez erabili izan zen euskal hitz-elkarte hau (zuetarik askok, zoritxarrez, ederto ezagutu edo entzungo zenutena; jakin, badakit eta, Euzko Gudarosteko gudariak ez zutela horrelakorik ko-bratzerik izan, ez eta beraien senideek ere). Natorren harira. Gaur egun Espainiako Lan eta Gizarte Segurantzaren alorrean erabiltzen diren *subsidio* eta antzeko berbek osotzen duten sistemaren zutabeetarik bat izan litekeelakoan nauzu, irakurle horrek.

Lanparoi.—*Tuberculosis* ordaina da. Baserri munduarekin zerikusirik baduzu, txikia bada ere, badakizu, jakin, zer den ganaduaren gaixo hau. Hortaz, gaur egun erabiltzeko moduan gaudela uste dut. Horrezaz gainera, berba hauek agertu ahala, konturatuko zinen, irakurle argi hori, garai hartan erabiltzen zen euskara garbizalea zela jakinik ere, hainbat eta hainbatetan oso sustraiturik dagoela euskara bizian, eta bertako berbaren bat edo beste erabili ahal izatera, hala egingo duela. Gaur

egun, itzultzaileok, besteak beste, gure zergintzan ditugun arazoetarik bat horixe da: tradizioarekin hautsi dugula ematen du; edo, aurretik ezer egin ez bailitzan jokatzan dugula. Lehenbait lehen zuzendu beharko den arazo deritzot honi.

Legedi.—Gaur egun bera eta *legeria* erabiltzen diraugu, bete-betean ematen duelako Iegezko xedapen guztiek (ez legeek bakarrik) osotzen duten sistemaren ordaina.

Lekai.—Badakit berba hau ez dagokiola beren beregi zuzenbideari, zerga-zuzenbidearen alorrean, erlijiosoen zerga-egoera arautzeko erabiltzen den araubidean aitutzen delako izan ezik. Hala ere, eta berba erderra ez ezik, herriaren mintzoan bizirauteko izan duen indarragatik, aitatu beharrekoa dela uste dut. Barkaiezaidazu, irakurle gixajo horrek, honaino heldu bazara; baina bide batezko hausnarketa bat egin gura nuke berba honen gainean: *lekai* erabiltzen du herri xeheak, baina *lekai-de*, aldiz, ez, edo behintzat, ez bestearen neurri berean. Horrela, bagatoz hizkuntzan dagoen axiomatarik batera: gerta litezkeen hizkuntz ahalbide guztiak ez direla gauzatzen.

Ogasun-paper jabe.—Merkataritza zuzenbidean, besteak beste, erabiltzen den kontzeptuaren adiera dugu. Hau *accionistaxQXi* ordaina da. Gaur egun itzulpengintzaren inguruan erabiltzen den terminologiari segituaz, *esanguraren aldetiko zehazkabetasunaren* aurrean gaudela esan liteke. Zuzenbidearen alorrean *agiri* edo *dokumentazioen* pare erabiltzeari desegoki deritzot. Izan ere, euskara bizian ere, *paperaren* ondoran, *agiri* eta *dokumentu* berbak erabiliak dira. Esaterako, Kiri-kinok berak bere *Bigarrenko Abarrak* izeneko liburuan, guri bete-betean datorkigun esaldia dakar: «*Euskeran dauzkagun zenbait itz —paperez, dokumentuz ez dakigun arren— argi-argi erromatarren izkuntzetik artuak ditugu*». Nahi duenak badiu beste hainbat adibide *Autoritateen Hiztegian* eta *Orotariko Euskal Hiztegian*. *Ogasun* berbari dagokionez, berriz, badi-rudi gaur egun (Administrazioan behintzat hala hitzartu da),

zergaren bidez osotzen diren hitz-elkarteez jokatzea dela bide eta aukerarik nagusia.

Ogasuna.—Ondare zuzenbidearen inguruko berba. Orduan ere, gaur egun bezala, esangura berean edo bertsean erabiltzen da, gaztelaniazko *Haciendaren* erakundearen ordain lege erabiltzen zenez.

Onordeko-ogasun.—Oinordetzazko zuzenbideari dagokion berba dugu. Garai hartan, *herencia yacenteren* ordain lege erabili zen. Gaur egun, *jaraunspen banatugabe* erabiltzen da gehienbat. Aukeran dago, zalantzarik ez. Hala ere, honi dagokion arazo nagusia, zuzenbidearen inguruan erabaki behar diren ordain guztiekin gertatzen den lege, sistema osoa euskaratu ez, baina gogartzea da. Beti ere, orduko itzultzaileok, gaur egungoen antzera, unean uneko arazoari konponbidea topatu behar izan zioten. Gaur egun, nire ikuspegitik, horri topatzen diodan arazoa hizkuntz zuhertasunarena da, alegia, *jaraunspen* erabiltzen badut [edo *here(de)ntzia*, Bizkaiko hainbat herritan gaur egun erabiltzen den bezala], *oinordeko* erabil dezaket *sucesor-en* pare; eta *ogasun*, lehen esan bezala, *haciendaren* ordain, bai erakunde, bai ondasun kopuru lege. Edozelan ere, harritzekoa da, orduan ere, zein sen fin izan zuten itzultzaileek, euskararen aldetik ez ezik zuzenbidearen aldetik ere, gaztelaniazko kontzeptu horren ordaina emaneran; kontutan hartu behar da garai hartan ez zegoela maileguetara jotzerik, hortaz, beraien ahalegina eskerga izan zen.

Ostu.—Espainiako zigor zuzenbidean erabiltzeko moduko aditza dugulakoan nago; horrela, bada, aditz honek gaztelaniazko *sustraer* aditzaren parekoa izango litzateke, *lapurtu robar-en* pareko, eta *ebatsi* aditza, azkenik, *hurtar-en* ordaina.

Ostutze imintzio.—Zigor zuzenbidearen baitako hitz-elkartea dugu, eta *tentativa de roboren* ordain gisa erabilia da. Gaur egungo urratsak beste norabide baterantz badoaz ere, eta zehaztasun eta segurtasun juridikoen aldetik ordain eztabaidagarria bada ere, mira egitekhoa da zelan taxutzen duten hizkuntza

itzulinguruen bidez ez ezik, hizkuntz irudien bidez gaztelaniazko ordainak emateko.

Ostutze.—Beraren aditzaren ildotik abiatuta, berau *sustraccion* gaztelaniazkoaren ordaina izan liteke; *lapurreta* berba ezagun eta orokorra, berriz, roborena; eta, amaitzeko, *ebasketa hurtoren* parekoa. Kontutan hartu behar da, arazo hau erabakitzerakoan hautazko jarrera hartu behar dela, alegia, erabiltzaileak (ez edonork, ezpada legegileak) ezarri behar diola euskaraz ere berba bakoitzari esangura, gaztelaniaz eta beste hizkuntzetan egin den legez.

Partxon.—Testuan, gaztelaniazko *a laparteren* ordain bezala ageri da. *Autoritateen Hiztegiak*, berriz, «sociedad en comandita». Hortaz, zuzenbide zibilarren inguruko berba izango litzateke bigarrenaren arabera; eta lehenengoaren arabera lan (?) zuzenbidearen alorrekoa (galdera-marka ipini dut, ezen euskal ekanduetakoa izan da untxi-jabe eta arrantzaleen arteko banaketa egiteko modua, eta zerikusi gutxi, beraz, Espainiako eta beste herrialdeetako lan zuzenbidearekin). Berba honek aukera ematen digu gaztelaniaz mamitzen den zuzenbidearen barruko jakintzagai horretako kontzeptu juridiko hori baliokidetasun osoko ordain batez emateko.

Uri.—Jatorrizko esanguran erabilia dago 1937ko martxoaren 7ko alearen 1223. orrialdean, bertan *villaren* ordain gisa erabilia baita; ondoren, eta hedapen semantikoaz, *municipio* adierazteko ere erabiltzen da egun bi geroago, izan ere 1234. orrialdean. Honen inguruan hausnarketa txikia egin nahiko nuke, gaur egun Administrazioaren esparruan suertatzen ari diren arazo batzuk direla eta. Izan ere, gaur egun Administrazioa karraderan "euskaldundu" nahi izate horrek gauzak sarritan itsu-itsuan egiteari eragin dio; hortaz, hainbat ordain desegoki ematen izan dugu eta eman ere egiten dugu Administrazioeko itzultzaileok (egia esan, halabeharrak edo patuak eraginda!). Berbarako, Espainiako administrazio zuzenbidetik *entidad de poblacionen* ordaina eman beharra ageri zaigu.

Zer gertatu eta *biztanle-gune* edo *biztangune* eman egin dela. Hala ere, hor dugu, egin-eginean ere, politikaren alorretik datorkigun berba bat, *uri*, aurrekoaren ordaina izan litekeena¹⁶.

Uri-Epailleak.—*Jueces municipales* adierazten duen euskal ordaina dugu. Eta, goian esan bezala, *uri* berbaren gainean eratutako hiltz-elkartea dugu.

Uribarruti (uri-barruti).—Aldaera biak ageri dira, eta beraien bitartez *termino municipal* eman nahi da aditzera. Gaur egun, Administrazioaren esparruan erabiltzen den *udal mugartearen* parekoa da.

Urizain.—Gaur egungo *udaltzainen* parekoa da. Erabat lotzen zaio aurreko berbaren erabilerari, beraren eratorria denez. Ageri denez, itzultzaileek *uriren* inguruan antolatu zituzten udalerriko arazoekin zerikusirik zuten kontzeptuak.

VI, *Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoaren* estatistika

Sarreran esan dudan legez, atal honetan, *Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoaren* gaineko jakingarriak eman nahi ditut. Gorago aitatuta badago ere, berriro eman nahi dut aditzera zein den erabili dudan argitalpena: Leopoldo Zugazarena izan da; argitalpen horrek hiru liburukitan barrena ematen ditu orduko Eusko Jaurlaritzaren aginduak, iragarkiak etab. Lehenengo liburukiak 696. orrialderaino garoaz; bigarrenak, berriz, 1401.era; eta azkenak 1824.era. Eguneroko aleekin batera, hiru eraskin ere ageri dira: aurrerengoa, 1936ko abenduaren 31koa, hogeita hamazortzi (38) orrialderekin; bigarrena,

¹⁶Izan ere, Euzko Alderdi Jeltzalearen erakundea *Uri Burn Batzarretan* datza; gaztelaniaz, *Juntas Municipalesen* izena hartzen badute ere, argi gelditzen da berba bien arteko baliokidetasuna ez dela erabatekoa, ezik *udalerrri* batzuetan Uri Buru Batzar bat baino gehiago dago, barbarako, Basauri, Bilbo, Donostia, Gasteiz, Getxo etab.

1937ko martxoaren 31koa, berrogeita birekin (42); eta azkena, 1937ko ekainaren 17koa, hamazazpirekin (17). Beraz, eraskinetan, Iaurogeita hamazazpi (97) orrialde ditugu.

Eguneroko aleetan emandako orrialde guztiak mila zortziehun eta hogeita lau (1.824) direnez gero, eraskinetako Iaurogeita hamazazpiak (97) batzen badizkiegu, guztira mila bederatziehun eta hogeita bat (1.921) orrialde ditugu.

Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoa erabat elebiduna izan zenez gero, euskaraz argitaratu ziren orrialdeak bederatziehun eta hirurogei orri t'erdi (960,5) izan zirela esan dezakegu.

Behin eta berriro aitatzen dihardugun sarreran agertarazi denez, zortzi iragarki baino ez ziren bizkaieraz argitaratu. Guztien artean, bi eta Iaurogeita bost (2,85) orrialde egiten dute; beraz, oso kopuru urria dugu.

Beraz, estatistika egiteko, honako jakingarri hauek ditugu¹⁷:

Orrialdeak guztira:	1.921
Euskarazkoak guztira:	960,5
Bizkaierazkoak guztira:	2,85
Euskarazko testuen portzentaia:	%50
Bizkaieraren portzentaia euskal testuetan:	%0,29
Bizkaieraren portzentaia testu guztietan:	%0,148

¹⁷ Jakingarri hauen guztien argigarri gerta daitekeelakoan, esan beharra dago zelan zenbatu ditudan orrien kopurua. Lehenengo eta behin, orrialdea erdibitu egin dut: erdi bat euskarari dagokio eta bestea berriz, gaztelaniari. Ondoren, euskal zatia hiru ataletan banatu dut, orrialdearen neurria kontutan hartuta, testu batek zati txiki bat baino betetzen ez duenean, berari dagokiokeen neurria ebazteko; hortik at era dira iragarki batzuen neurri txiki edo ziztrinak. Dena dela, hau biderik egokiena delakoan aukeratu dut.

Amaierako berbak

Lan handia dago eginkizun arlo honetan; ahalegintxo hau ondoren etorriko diren emaitza hobeen lanen aitzindaria izango al da! Ikerkuntza eremu askotan egin beharrekoa da: itzulpengintzaren teknikaren ingurukoa; hizkuntzaren alor hutsetikoa; hiztegiaren alorretik, hizperrintzak duen garrantziaren gainekoa; itzultzaileak nortzuk izan ziren jakitearen ingurukoa; etab.

Anjel Lobera Revilla
Bilbon, 1994ko irailaren 9an